

EAJ-PNVk EH-Bilduri legez kanpoko okupazioaren aurrean jarduteko eta Laudioko Udaltzaingoaren segurtasuna eta errespetua bermatzeko exijitu dio

- *Talde jeltzaleak urteko lehen osoko bilkuran salatu zuen Udal Gobernuaren pasibotasuna espazio publiko eta pribatuen okupazioaren aurrean, eta erantzun legal eta soziala eskatu zuen, baita babes handiagoa ere udal langileei eta Udaltzaingoiari*

Laudio, 2026ko urtarrilaren 28a. – **Euzko Alderdi Jeltzaleak** Laudioko Udalari eskatzen dio erantzukizunez eta irmotasunez joka dezala udalerriko hainbat espazioren legez kanpoko okupazioaren aurrean, eta herritarren segurtasuna eta Udaltzaingoarekiko errespetua berma ditzala. Hala eskatu zuen **Ander Añibarro** EAJko bozeramaileak astelehenean, urteko lehen bilkuran.

Eztabaidan zehar, EAJ-PNVk udalerrian okupatutako hainbat espazioren egoerari heldu zion, udal titulartasunekoak zein pribatuak, **batzuk bizileku gisa erabiliak eta beste batzuk beste helburu batzuekin**, eta zalantzan jarri zuen gobernu-taldeak errealitate horren aurrean emandako erantzuna. "Galdera argia egiten dugu: zer egiten ari da Laudioko Udala zeregin horien aurrean?", adierazi zuen Añibarrok.

Bozeramaile jeltzaleak gogorarazi zuen Udalak, eta bereziki Ainize Gastaka alkateak, erakundearen arduradun nagusia den aldetik, udalaren ondasun eta eskubideak defendatzeko legezko betebeharra duela. "Hori ez du EAJ-PNVk esaten, legeak ere hala dio", azpimarratu zuen, eta berariaz aipatu zituen **Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen** 68.1 artikulua eta **Toki Erakundearen Ondasunen Erregelamenduaren** 9.1 artikulua, toki-administrazioak behartzen baitituzte beren ondarea defendatzeko behar dituzten ekintzak egitera.

Añibarrok, gainera, Udal Gobernuak jarduera horien inguruan dituen kontraesanak salatu zituen. Hain zuzen ere, alkateak osoko bilkura zuzendu zuen eta "okupaziorik salatu ez" zela esan zuen. "Argitasun falta hori ez da onargarria", jarraitu zuen zinegotziak. Ildo horretan, gogorarazi zuen EAJ-PNVk behin eta berriz eskatu duela jakiteko zer lege-ekintza hasi diren udal-titulartasuneko eraikinak berreskuratzeko.

"Okupazioa ezin da zuritu, arazo soziala delako soilik", ohartarazi zuen bozeramaile jeltzaleak. "Ados gaude egoera sozial konplexuak daudela esatean, baina erantzunak bikoitza izan behar du: alde batetik, legala, indarrean dagoen araudiak eskatzen duen bezala, eta, bestetik, soziala", gaineratu zuen.



Ido horretan, EAJ-PNVk defendatu zuen Udalak badituela eskumenak eta baliabideak kaltetutako pertsonen beharrei erantzungo dieten neurri sozialak aktibatzeke, baina azpimarratu zuen "legez kanpoko okupazioa ezin dela irtenbide gisa onartu, ezta esparru politikotik normalizatu ere". "Eskatzen duguna da beharrezkoak diren baliabide sozialak aktibatzea, baina baita Laudioko herritar guztiena den udal ondarea berreskuratzeke ekintza legalak egikaritzea ere", azpimarratu zuen Añibarrok.

Herritarren segurtasuna eta udal langileentzako babesa

Bere hitzaldian, bozeramaile jeltzaleak herritarren segurtasuna eta erakundeen babesa ere izan zituen hizpide, bereziki Udaltzaingoa. Añibarrok bizikidetzaren narriaduraz ohartarazi zuen eta Udalaren jarrera argia eskatu zuen egunero udalerraren zerbitzura lan egiten dutenen defentsan. "Ezinbestekoa da udal-langile guztiak babestea, eta, bereziki, Udaltzaingoa, funtsezko lana egiten baitu", adierazi zuen, eta gogorarazi zuen EAJ-PNVk Gobernu Taldeari eskatu ziola plantilla indartzeko, eskura dauden bitartekoak hobetzeko eta Ertzaintzarekin koordinatuta lan egiteko, udalerriko segurtasuna bermatzeko.

EAJ-PNVk azpimarratu zuen pasibotasuna, erabaki argirik eza eta estrategia integralik eza ziurgabetasuna eta ezinegona sortzen ari direla herritarren artean. "Laudio bere erantzukizunak bere gain hartuko dituen, zorrotz jokatu duen eta legea beteko duen Udal bat behar du, aitzakiarik eta kontraesanik gabe", amaitu zuen Añibarrok.

Horrela, EAJ-PNVk bere kontrol- eta fiskalizazio-lana egiten jarraituko duela iragarri zuen, Laudioko Udalak bere ondare publikoa defenda dezan, beharrezkoak diren gizarte-baliabideak aktiba ditzan, herritarren segurtasuna berma dezan eta Udaltzaingoa argi eta irmo babes dezan eskatzeko, laudioar guztien mesedetan.